

2019. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2018ko urriaren 23an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2018/12/14. 240. zk.

**MUSIKA ESKOLAN ZERBITZUAK EMOTEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DAUEN ORDENANTZA FISKALA (2019/2020 IKASTURTEA)**

**1. artikulua: KONTZEPTUA**

Udal honek, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak eta Tokiko Ogasunen abenduaren 16ko 2005/9 Foru-Arauko 16. eta 21. artikuluetan oinarrituta, Udal Musika Eskolan zerbitzuak emoteagaitik ordaindu beharreko tasa ezarri dau ordenantza fiskal honegaz araututa.

**2. artikulua: EGITE EZARGARRIA**

Tasaren egite ezargarrria Udalak musika inguruan arautu gabeko irakaskintza zerbitzuak emotea da.

Irakaskintza zerbitzu eskaintza ikasturte bakoitzerako Udal Musika Eskolak antolatutakoa izango da, Musika Eskolei jagoken legediaren eta Udal Musika Eskola Zerbitzuen Araudiaren arabera.

**3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Foru Arau Orokorraren 34.artikuluan azaltzen diran pertsona fisiko eta juridikoak dira subjektu pasiboak zergadun kontzeptuan. Kasu honetan, Musika Eskolan matrikulatzen diran ikasleak, bereziki, adin txikikoak izan daitekeenez, euren legezko ordezkariak izango dira subjektu pasiboak.

**4. artikulua: KUOTA**

1. Tributuzko kuota ikasmaita eta zerbitzu bakoitzerako zenbateko finkoagaz zehaztuta egongo da epigrafeen arabera eta jarritako denboran zatiezinak izango dira. Ikasturteko zenbatekoak matrikularen epe hasieran indarrean egon daitezcan espresuki onartuko dauz Osoko Bilkurak otsailean/martxoan.

2. Epigrafeak

| EPIGRAFEAK                                   | 2019/2020<br>kurtsoa (€) |
|--|--------------------------|
| <b>MATRIKULA</b>                             |                          |
| 1.1 Matrikula                                | 57,33                    |
| <b>HILEKO KUOTAK</b>                         |                          |
| 2.1 Harrera mailak: A eta B                  | 29,12                    |
| 2.2 Harrera maila D                          | 57,06                    |
| 2.3 Hasiera mailak: Prestakuntza 1,2,3       | 98,78                    |
| 2.4 Hasiera mailak: 4 eta 5                  | 98,78                    |
| 2.5 Finkatze maila                           | 65,15                    |
| 2.6 Instrumentu bakarra                      | 55,57                    |
| 2.7 Bigarren instrumentua                    | 41,67                    |
| 2.8 Taldeak                                  | 22,40                    |
| 2.9 Instrumentu indartua                     | 42,74                    |
| <b>ZERBITZU BEREZIAK</b>                     |                          |
| 3.1 Instrumentu modulua, ikastaroak          | 147,70                   |
| 3.2 Koro modulua                             | 42,65                    |
| 3.3 Talde modulua                            | 83,38                    |
| 3.4 Zentroko instrumentuen erabilera, hilero | 11,15                    |
| 3.5 Musikearen oinarrien modulua             | 67,21                    |

## 5. artikulua: HOBARIAK

Aurreko artikuluan zehaztutako kuoten hobari eskubidea eukiko dabe ondorengo egoeran aurkitzen dirala kreditatzen daben ikasleak:

1. Hileroko kuotetan: Senide bereko ikasle bi baino gehiago diranean zerbitzu hartzaileak, hau da, gurasoak, seme-alabak, aitita-amumak, beti ere haregaz bizita, hileroko kuotak proportzio honeetan gitxituko dira, adinez nagusienatik hasita, beheeraka:

- a) Senideko nagusiena dan zerbitzu hartzaileak: ez dau eukiko hobaririk.
- b) Bigarren nagusienak: %25eko hobaria.
- c) Hirugarren nagusienak: %50eko hobaria.
- d) Laugarren nagusienak: %75eko hobaria.
- e) Bostgarrenak eta hurrengoak: %100eko hobaria.

2. Matrikula kuotan:

a) Sendi ugaria dala erakusten dauan ikasleak matrikularen kuotan %50 hobaria eukiko dau.

b) Langabetua dala erakusten dauan ikasleak matrikularen kuotan %100 hobaria eukiko dau.

Hobari hau aplikatu ahal izateko matrikulatzeko momentuan langabetua dala erakutsi behar dau interesdunak Lanbidek emondako langabetua izatearen ziurtagiria aurkeztuta [Berh@z](#) bulegoan matrikula inprimakiagaz batera.

3. Iraileko kuotak: Iraileko kuotak 4. artikuluko 2. epigrafean zehaztuta dagozanen %50a izango dira.

4. Zerbitzua emateko arazoengaitik hobariak:

1- Antolakuntza arazoekatik edo bestelako ezintasunagatik ikasgai batek hile baterako aurreikusita daukan bete beharreko ordu kopurua baino gutxiago beteten danean, ez emondako denboraren arabera zerrendako hobaria aplikatuko da ikasgaiaren kuota zatian eta zenbateko hori deskontatuko da hilabeteko kuota osotik.

| <b>GALDUTAKO KLASE ORDU KOPURUA</b> | <b>HOBARIA</b> |
|-------------------------------------|----------------|
| %0 tik %25 era                      | %0             |
| %26 tik %50 era                     | %25            |
| %51 tik %79 era                     | %50            |
| %80 tik %100 era                    | %100           |

2- Hobaria behar dan legez aplikatzeko, erantsita geratzen dira 2010/2011 ikasturtean zerbitzu/ikasketa bakoxtari jagokozan ikasgaiak, denborak eta kuota zatiak (l. eranskina).

3- Ikasgaiaren *kuota zatia* kontzeptua/zenbatekoa atal honetako hobarientzat bakarrik balioko dau.

## **6. artikulua: MATRIKULA**

1- 4. artikuluko 2. ataleko epigrafeei jagokezan zerbitzuak eta 3.4 epigrafekoa *IN-E 42* matrikula eskaera-orriagaz eskatuko dira Ikasturte bakoxtean, inprimakian dagozan beharrezko datu guztiak beteta, hobarien kasuan ezinbesteko agiriak erantsita eta matrikularen kuota helbideratuta ordaindu gura izan ezker banku-kontua jarrita.

2- Matrikula eskaria onartzeko aurreko ikasturteetako zorrak ordainduta euki beharko dauz, beraz matrikula eskaera-orriagaz batera ikasle/tutore eskatzaileak Musika Eskolako zerbitzuengaitik ordaintzeko epea igarota daukan zorrak ez daukanaren Diruzaintzako ziurtagiria aurkeztu beharko dau.

3- Matrikulatzeko epea apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean izango da.

4- Nahiz eta Musika Eskolako administrazioak inprimakia betetzen lagundu, matrikulatzeko epe barruan matrikula eskaera-orria eta beharrezko eranskinak [Berh@z](#) bulegoan aurkeztu beharko dira eskariak balioa euki ahal izateko.

5- Matrikula eskaera-orria [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkezten dan egunetik hasita, 10 eguneko epean, atzez egin daiteke espresuki idatziz eskatuta. Kasu honetan matrikula kuota ez da kitatuko edo ordainduta euki ezkerok itzuli egingo da.

6- Matrikula eskaera-orrian matrikula kuota ordaintzeko egindako aukeraren arabera, honela kitatuko da matrikula kuota:

- a) Ordainketa banku-kontuan ez helbideratzea aukeratu dabenean matrikula eskaera-orria [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkezten dabenean eguneko autolikidazinoa egingo jake eta 10 eguneko epean ordaindu beharko dabe. Epe horretan ez ordaintzeak matrikula eskaria behin-bengoz balio barik itziko dau.
- b) Ordainketa banku-kontuan helbideratzea aukeratu dabenez -07 errolda osatuko da eta banketxeetara bialduko dira erreziboak, kasu honetan beste edozein kasuetako helbideratuen kudeaketa-hitzarmenaren arabera kobratuko dira. Erreziboa ordaindu barik banketxeak itzultzeak behin-bengoz matrikula eskaria balio barik itziko dau.
- c) Aurreko ataletan aipatutako ordainketa ezagaitik behin-bengoz balio barik geratutako matrikula eskariak eskuz ordaintzeko bigarren aukera emongo da, azken eguna irailaren 30 izango da. Ordaindutakoak behin-betiko matrikulak izango dira. Ez ordaindutakoen matrikula eskariak ezabatu egingo dira.

7- Zuzendaritzak ziurtatuko dau talde eskatzailearen ikasle kopurua kontutan izanda edo bestelakoak zerbitzua ematea posible dan ala ez. Zerbitzua ematea ahalbidetzekoa ez danean matrikula kuota itzuliko da.

8. Matrikulatzeko jarrita dagoan epetik kanpo egin daitezke zerbitzu eskariak, aurretiaz, Zuzendaritzak balizkoa dala ziurtatuta interesatuari. Kasu honetan ez da egongo kuota ordaintzeko helbideratze aukerarik, beraz autolikidazinoz ordaindu beharko.

9- Behin baja eskatuta gero alta eskatzea alta barri legez hartuko da eta 8. atalean xedatutakoa izango da aplikagarria.

## **7. artikulua. SORTUTAKO TARIFAK ZATI BATEAN EDO GUZTIZ EZEZTATZEA**

1. Matrikulatuei tarifak zati batean edo guztiz ezeztatu ahalko zaizkie, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Ikaslea hiltzen bada.
- b) Ikasturtea hasi ondoren, ikaslearen familia unitatea beste herri batera bizitzera joaten bada.

c) Matrikula egin eta gero gertatutako ezinbesteko zernahi kausagatik. Horrelakoetan, nahitaezkoa izango da Musika Eskolako Zuzendaritzaren aldeko txostena eta onartua izango da.

2. Ezeztatu egingo da musika eskolara hilean egun bat bera ere joan ez den hileko eta hurrengoetako zati alikuota, baldin eta joan ez izanaren arrazoia tarifaren zati bat edo gutzia ezeztatzea ahalbidetzen duen arrazoiren batengatik bada. Musika Eskolaren ikasturtea hasi baino lehenago gertatu badira 7.1 atalean aipatutako arrazoiak, matrikula eta espediente irekierarengatik ordaindutakoak itzuliko dira. Bestela, ez da matrikula eta espedientea irekitzeagatik ordaindutakoak itzultzerik izango.

3. Tarifak zati batean edo guztiz ezeztatzeko eskubidea Musika Eskolaren Zuzendaritza onartuko du, ofizios edo interesdunak eskatuta.

## **8. artikulua: HILEROKO ERROLDAK**

1- Ordainketaren ondorioz behin-betikoak diran matrikulen datuen arabera Musika Eskolako errolda osatuko da, ikasle bakotxa, kasua balitz tutorea, dagozkion tasa epigrafeak eta hobariak erregistratuta. Musika Eskolako Zuzendaritzak ziurtatu beharko dau zerbitzu hartzaileak errolda horretan dagozanak bakarrik dirala.

2- Ikasturtean hileroko errezipozko kitapenak 10 izango dira, irailetik ekainerarte, biak barne. Horreek hileroko errolda fiskala osatuko dabe.

3- Matrikula eskaera-orrian hileroko kuotak ordaintzeko egindako aukeraren arabera, errolda kaleratuta honela kobratuko dira errezipozko kitapenak:

- a) Erroldaren onarpena eta ordainketa epea onartutako urteko aldizkako tributuen egutegian jarritakoa izango da. Edozein kasutan bi hilabetekoa. Errezipozko kitapenak izanik epean ez ordaintzeko aitzakia ez da izango errezipoa ez hartzea.
- b) Ordainketa banku-kontuan helbideratzea aukeratu dabenenak beste edozein kasuetako helbideratuen kudeaketa-hitzarmenaren arabera kobratuko dira.
- c) Aurreko ataletan aipatutako epean ez ordaintzeak derrigorrezko bilketa prozedura aplikatzea ekarriko dau.

4- Behin matrikulea behin-betikoa izanda, abenduaren 31 arte eskatu daitezkez bajak, beti baja eskaria Erregistro orokorrean aurkeztuta. Horrela egindako eskarien ondorioz baja emongo jake zerbitzu erroldan eta eskari dataren hurrengo hilabetetik aurrera ez dabe ordaindu beharko hileroko kuotarik.

5- Urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako bajak, ez dabe ordainketetan eraginik eukiko, hau da, baja eskatu arren eta Musika Eskolara ez joan arren, ekainerarteko hileroko kuotak ordaindu beharko dira.

6- 6.artikuluko 8. atalean aurreikusitako matrikulen kasuan zerbitzu erroldan eta errolda fiskalean alta emongo jake matrikulatzen diran hilebete bertan.

#### **9. artikulua: BESTELAKO ZERBITZUAK**

1- 4. artikuluko 2.3 ataleko bestelako zerbitzuak Musika Eskolako Zuzendariak antolatzen dauan arabera eta eperako emongo dira.

2- Zerbitzu eskaria [Berh@z](mailto:Berh@z) bulegoan aurkeztu beharko da eta aurkezten dan egunean autolikidazinoa egingo da. 10 eguneko epean ordaindu beharko da. Epe horretan ez ordaintzeak eskaria balio barik iztea ekarriko dau, beraz zerbitzua emoteko/hartzeko debekua.

#### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau 2010eko urriaren 28an onartu eban Osoko Bilkurak, 237. B. A.O. ean argitaratua izan da, eta 2011ko urtarrilaren 14an sartu da indarrean, horrela jarraituz Osoko Bilkurak aldatzea edota baliogabetzea erabakitzen ez dauan artean.